

5.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko herriek berdintasuna sustatuko dute jaietan

Berdintasunean oinarritutako jaiak sustatzea da Berdinbidean Bizkaia programaren baitan egindako lehenengo ekintza, udalerri txikietan Genero Berdintasuna sustatzeko asmoz

Berdinbidean Bizkaia Bizkaiko Foru Aldundiak eta EUDELe koordinatutako proiektua da, Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Generoko Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Bulegoaren lankidetzarekin.

22 udalekin egindako lan-tailerrei esker, udal egitarauak hobetzeko esparruak identifikatu ahal izan dira, jaietan sexuagatiko desberdintasunak eta diskriminazioak desagerrarazi ahal izateko.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta EUDELe, Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Generoko Indarkeriaren Biktimei Arreta Emateko Zuzendaritzaren partaidetzarekin, Bizkaiko udalerrietako jai egitarauen antolakuntzan Berdintasunaren ikuspegia sartzeko prozesua ireki du.

Ekaineko azken hamabostaldian lurreta, Lezama eta Artzentaleseko eskualdeetan egindako taldekako tailerretan, Bizkaiko 22 udalerri hartu dute parte, eta, bertan, generoko ikuspegidun jai-egitarauaren diseinua landu da, jaiak osatzen dituzten jardueretan dauden desberdintasunak desagerrarazteko asmoz; esate baterako, kirolean, dantzetan, ekitaldi gastronomikoetan edo kontzertuetan.

Analisian, antzeman da kirol-jarduerak direla udalek hobetu behar duten lehentasunezko esparruetako bat; zehatzago esateko, herri kirolak eta txirrindulari-lasterketak. Analisirako oinarri gisa erabili diren gaietako batzuk erabilitako hizkera eta irudiak izan dira, bai eta jardueren ordutegia, edo emakumeen partaidetza eta irisgarritasuna jaietako proposamenetan ere.

Jaietako Berdintasunaren alde lan egiten jarraitzeko asmoz Berdinbidean Bizkaia emango duen hurrengo urratsa material erabilgarria bidaltzea izango da, udalerrietan Berdintasuna sustatu ahal izateko.

Udalerrien balorazioa

Prozesu honekin, udaletako politikari eta teknikariak sentsibilizatu eta trebatu nahi dira, Berdintasuna jaien antolakuntzaren esperientzia praktikotik landuz. Hain zuzen ere, udalerrietatik hurbil dauden eskualdeetan tailerrak egitea eta tailerretako edukiak modu praktikoan aplikatzea dira bertaratutakoek ondoen baloratzen dituzten arloetako bi, 8 puntuko batez bestekoarekin (10etik), amaierako inkestaren arabera.

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek Bizkai osoaren %80 osatzen dute. Udalerrri txikiek baliabide gutxiago dituzte, baina herritarrengandik hurbilago daude, eta, ondorioz, euren jardunak berehalako oihartzuna dauka. Hori dela eta, Berdinbidean Bizkaiak beharrezko babes teknikoa eta koordinazioa eskaintzen die, lan hau eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko.

Berdinbidean Bizkaia Gipuzkoatik eta Arabatik ere sustatzen den prozesu baten parte da; modu horretan, hobeto aprobetxatzen dira Euskadiko 3 Lurralde Historikoetako udalerrien sinergiak eta helburuak.

Eskualdeak		IURRETA	LEZAMA	ARTZENTALES
Udalerriak:				
	AJANGIZ	DERIO	GALDAMES	
	AULESTI	BAKIO	KARRANTZA	
	BERRIATUA	LEZAMA	LANESTOSA	
	ETXEBARRIA	LOIU	SOPUERTA	
	IURRETA	MARURI-JATABE	TURTZIOZ	
	MALLABIA	SONDIKA		
	MARKINA-XEMEIN	TXORIERRI M		
	ZALDIBAR	URIBE KOSTA M		
		ZAMUDIO		
Guztira, 22	8	9	5	